

TXILLARDEGI

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

1. argitalpena: 2012ko apirilean

Bildumaren zuzendaria:
Antxon Lafont Mendizabal

Maketazioa:
Erein

© Fito Rodríguez

© Erein. Donostia 2012

ISBN.: 978-84-9746-757-5

L.G.: SS-624/2012

Erein Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea : Martínez Inprimategia
Juan XXIII auzunea, 16. 20730 Azpeitia

T 943 815 555

e-mail: martinez@inpri.e.telefonica.net

TXILLARDEGI

Fito Rodríguez

Haran bildumak interes zabaleko gaiak nahi ditu planteatu, “eserialdi bateko irakurketa” bultzatuz. Gaur egungo gaiak, ospe onetsia duten egileek idatziak.

Bildumaren zuzendaria, ANTXON LAFONT MENDIZABAL.

Aurkibidea

1. EUSKARA BATUA EUSKALDUNON BATASUNAREN OINARRIA	11
2. HIZKUNTZAREN “STATUSAREN” ALDARRIKAPENA . .	24
3. POLITIKAREN BIDEAN	27
4. LITERATURA	28
5. SAIAKERA	31
6. TXILLARDEGI, ABERKIDE INTELEKTUALA:	37

Liburu hau ez nuen idatzi nahi (ez bainuen uste, besteak beste, Txillardegiren emaria liburutto batean kabitzen zenik...), eta idazle batek liburu bati buruz adieraz dezakeen gauza bortitzena izaten da hori... baina, hastapenetatik esan beharra dago, Txillardegirekin zorretan nengoela eta, nolabait, idazki honen bidez, harekiko zorra kitatu nahi izan dudala.

“Txillardegiren oraina” bere testuetarako hurbilketa bat da, eskaintza bat. Bera zendu ondoren, gure gizarte hipokrita honetan ohi den bezala, berari buruzko laudorioak besterik ez genituen entzun berau iraganera igorri nahian, nonbait, baina, aldiz, haren oraina aldarrikatuz, Jose Luis Alvarez Enparantzarengan iritsi nahi dut eta, haren bidez, hark bizitutako garaiari buruzko orduko iritziak agerraraziz eta, ondorioz, Txillardegik utzitako ondarea ulertarazten lagundu.

Euskal kultura asko zor diolako Larresorori, Usakori, Harribizketari edota Txillardegiri...

Hala literatur arloan nola saiakeragintzan, gogamen filosofiko/politikoan edo, zehazkiago, glotopolitikoan. Dialektologian, fonetikan nahiz azentuaz...

Honetaz gain, Txillardegiren testuak daude, fikzio-koak eta kazetaritzakoak, eleberriak, ipuinak eta itzulpenak, hamaika iruzkin egiteko gure artean betiko utzi dizkigunak. Testuotan oinarritutako Txillardegiren irakurbidea duzue hau, bada, orain hastera doana...

Txillardegi izan zen europar kulturaren berri euskal literaturan estreinakoz eman zuena. Literatura berria euskaraz eman zigun idazle urbanoa, laikoa eta iraultzailea. Nazioarteko kultur erreferentzia garaikideak euskal nazio zaharrera ekarri zituen abertzalea. Akademiak maite izan ez zuena nahiz eta berak jakintza maite.

Euskal presoak, erbesteratua eta errefuxiatua. ETA-ren fundatzailea eta errefusatzailea. Existenzialista eta polemikazalea. Berak sortutako fikzio pertsonaien parekoa:

“Leturia’ren paperak billatzen asko ahalegindu arren, ez dugu aztarnarik ere arkitu bere sasoi honi buruz.

Badakigu, ta irakurlea bera konturatuko da honeztaz berehala, hutsune bat dagoela bere egunkarian...

Nola hori? Ondorenean ematen ditugu gure azalpenak.

Zoriontsu izan al zan Leturia aro honetan? Baiezkotan gaude. Ez dakigu zehatz pozez beterik, ala alai

xamar bakarrik bizitu ote zan bera". (Leturiaren egunkari ezkutua)

Eta, bere Leturiaren antzera, zoriontsu edo ez, idazlea izan da oroz gain, saiakeragintzan, gogamen filosofikoari muzin egiten ez ziona, independentziaren aldeko politikaz arituz...

Poesia izan da bere idazkuntzan agerian landu ez zuen arlo bakarra eta, hala ere, idazle estimatu hura, gure Gabriel Arestik zioskunez, Txillardegi betikoa, musikari guztiak bezala, funtsean, poeta ere ba zen.

Txillardegi zenari asko zor zaio, hala euskal kulturak nola euskarak berak, eta euskal literaturak batik bat zorra, eduki, badu berarekin...

Haren idazkiak lagun, berak jorratutako arlo ezberdinak, testuz testu aztertuz, zor hura kitatzen lagundu beharko genuke haren emaria ikertzen eta zabaltzen, haren ekarpen literarioa eta intelektuala aztertzen berak idatzitako testuak horretarako erabiliz...

Bera hil ondoren, euskaltzain oso izendatu nahi izan ez zuen euskararen akademia-buruak honakoa adierazi zigun:

"Belaunaldiei dagokienez, Txillardegik ekarri zigun guri, joan den mendeko 50-60 hamarkadetan jaiotakoei, halako haize berria, desberdina, nobela zein saiakera arloetan eta, oro har, gizartearen eta kulturgintzaren esparru anitzetan. Osterantzeko tenore horrek zekarren, ekarri ere, euskararentzat etorkizuna eta biziraupena.

Ingurukoa aintzat hartuta, Txillardegi, beste askoren antzera, oro egilea izan da euskalgintzan, teoriakoa nahiz eragilea. Letraz letra irentsi genituen gutariko askok, gose eta ezin ase ari ginenok euskararen munduan, haren lanak eta tituluak, euskara batuaren eraikitze prozesuan.

Euskara batua, euskararen eraberritzea, euskararen normalizazioa... orduko kezkek eta ardurak ziren, egun ere euskaldunoi ezinegona ekartzen digutenak. Txillardegi, bistan da, horiek askatu, erraztu eta aurreratzen ahalegindu da". Andres URRUTIA | Euskaltzainburua, "Txillardegi, euskal «intelligentsia»-ren haritik". GARA 16/01/2012.

Eta, berez, euskara batuaren jaiotzan eta garapenean bere ekarpenaren munta horren premiazko izan denez, aipatu lana behar bezala azter dezagun:

1. Euskara batua euskaldunon batasunaren oinarria:

Hizkuntza normalizatuak eskola sistema behar du eta eskolan, beste gauza guztiarekin batera, hitz egiten da, eta hitz-jario eskolarraren garrantziaz ohartzeko Txillardegiren ekarpen praktiko zein teorikoei behar bezala erreparatu behar zaizkie. Berak jakin izan zuen bere garain hizkuntza literarioa proposatzen eta, ondoren, prosodiari buruzko aldarrikapenak egiten. Txillardegiren irudi intelektual eta maisuaren ekarpenak bere ardatzetan kokatu beharra delakoan nago. Ireki beharreko bide honek, ordea, oraindik jorratzeke dago eta, horretarako, bere xumean, liburutto hauxe, aurreproposamena besterik ezin da izan.

Euskararen batasuna dela medio ikerketa batzuk plazaratzen joan badira ere, gehienak hizkuntzalari-tza, soziolinguistika edota historia dute abiapuntu nahiz helmuga.

Hemen landu nahi dugun bide honetan, berriz, gure hizkuntzaren gizarte-eraikuntza modernoan horrenbesteko garrantzia duen euskararen batasuna ikuspegi diakronikoaz behatu nahi dugu. Hau da, euskararen hizkuntza literarioaren hedapenari so egin nahi diogu berarentzat funtsezkoena den berrekoizpen-mekanismotatik begiraturik: heziketa, eta zehazkiago irakaskuntzatik bertatik ikusita, alegia.

Horrexegatik hemen eskaintzen dugun Txillardegiri buruzko lanak gehiago joko luke hezkuntzaren

historiaren aldera ohizkoak dauzkagun hurbilketa ideologikoetara baino. Planteamendu berria, beraz, dagoeneko mende erdia baino gehiago duen historia baterako, euskara batuaren kronikarena, hain zuzen.

Hala eta guztiz, hutsuneak azaltzen baldin badira, edota zenbait akats nabarmenduko balira... gaiari emandako tratamendu berriagatik izan daitekeelakoan nago eta ez zaio leporatu behar Txillardegiri berari bere kronista naizen honi baino.

Edozein modutara ere, hemen eskainitakoa, askotan hau adieraztea topikotzat hartua izan arren, Txillardegiri egindako beste hurbilpen bat besterik ez dugu.

“Il n'est pas nécessaire de souligner l'importance de la fonction d'une langue standard consistant à affirmer l'identité d'une communauté linguistique c'est en développant sa propre langue standard qu'une communauté parlante, de dialectale, devient linguistique et se distingue d'une autre communauté linguistiquement apparentée et/ou politiquement dominante” zioen Paul Garvinek (1986) eta Txillardegik horri kasu egin zion euskara batuaren beharra proposatzerakoan 1968 aurretik.

Euskal Herria, Mac Legasse idazleak adierazten duen moduan, oraindik politikoki existitzen ez den herria da, nahiz eta gure egunotaraino heldu den “kontrabandoz” historian zehar (“Los contrabandistas de Hilargi-Zaharra”. 1980. Txertoa. Donostia).

Kontrabandoa ofizio historikoa baino areago, euskaldun ororen ia betebeharra izan da, zeren eta, “malgrê nous”, Euskal Herria Ipar eta Hegoaldean banaturik daukan muga, ez da sekula aintzatetsia izan herria bere izatearekin identifikatu izan dituzten kon-tuetan: hizkuntza, kultura, eta eguneroko harremanetan. Hala ere, mugak ekarritako aldeak sortu dituzten banakuntzen historian Txillardegia bezalako pertsonaia historikoak badude, egon, zeintzuk, 2012. urte honetan ulertzen zaila izan arren, Euskal Herriaren zatiketari aurre egiteko baliabideak nahiz gaitasunak metatu dituzten, herri hau egin dituen erresistentzi/diferentzi praktikak indartzen lagundu izan dutelarik.

Mendeetan zehar gure mugetan, kontrabandisten isilpeko kodea izan den euskara, edo euskaldunen hizkuntza, hizkuntz gutxipen eta ordezte-prozesu hazko-rran murgilduta dago oraindik, honek existitzea ere arriskutan jartzen diolarik.

Txillardegiren lanak euskal hizkuntzaren batasunaren inguruan Euskal Herriaren –etimologikoki euskaradunen herritzat hartuta– iraupenerako estrategia desberdinen aukerak zabaltzen nabarmenki lagundu du.

Euskal kultura “kultura kolonizatutzat” definitzea debate askotako eztabaidagai izan bada ere, hemen egi-ten den aukeraren ildoaren erreferentziazat har bitez Gisèle Halimiren **Le procès de Burgos** liburuaren

(1971-Galimard, collection temoins. Paris) hitzaurreko J. P. Sartreren hitz inola ere ez partzialak ez susmagarriak.

“... *Si colonie il y avait, ce paradoxe que le pays colonisateur serait pauvre et surtout agricole au lieu que le pays colonisé serait riche et qu’il offrirait le profil démographique des sociétés hautement industrialisées*”; paradoxikoki, Euskal Herria “herri kolonizatuen” artean sailkatzeko aukera egiten du, aukera hau hizkuntz/kultur eremuan oinarriz: “*La majeure partie des millions “rendus” vont aux organes d’oppression (administration espagnole où espagnolisée, armée d’occupation, police, tribunaux. etc...) ou debasquisation (l’université où l’on n’enseigne que la langue et la culture espagnoles)*”.

Egoera hau gainditzeko moduari buruz, Sartrek berak ere Albert Memmiren lanetan bilatu zuen euskarria, eta, autore honen **Portrait du colonisé** liburutik hara aipu eginez, honako hau ondorioztatzeko erabili zuen, hots, kolonizazioari buruz kolonizatua bakarrik mintza daitekeela behar bezalako sakontasunez, zeren, beti ere haren argudiaketari jarraituz, kolonizazio kulturala kolonizatzaileek sekula izan ez dezaketen bizi esperientzia delako.

Aurrean esan dudanez, hauxe eta ez beste izatea izan zen Txillardegiren lan-ildoak. Eta kasu honetan, ildo honek euskal hizkuntzaren batasunaren gora-beherak eta ondorioak azaltzera eramane zuen, euskal

kulturaren eta Euskal Herriaren batasunaren bidean funtsezko pausua berau.

■ Oso ezaguna den bezala, idatzizko hizkuntza batuarekiko ardura historikoki protestanteen erreformarekin eta haiek norbanakoaren Eskritura Sainduen irakurketaren alde egindako aukerarekin lotuta dagoen hezkuntz kezka bat da. Honetan, eta perspektiba hau gurean behar den arretaz ikertu izan ez den arren, euskal hizkuntzaren kasua ez da inolako salbuespena. Aitzitik, euskal hizkuntza batzeko premiari buruz daukagun lehenbiziko berria, J. Leizarraga artzain protestantearena dugu (1571), zeina, bere garaiko idazlerik gehienak bezala, Ipar Euskal Herrian sortu eta bizi izan zen, eta aldi berean, hizkuntzaren batasunaz hitz egitean, behin eta berriz azpimarratu zuen ekinkor Euskal Herriaren beraren batasuna.

Hala ere, Kontraerreforma katolikoa, hala Ipar nola Hego Euskal Herrian, izan zen geroztiko ia euskal literatura guztiaren ama, honek ere, tinko eutsi ziolarik, hala eta guztiz ere, euskaldun guztientzat izan behar zuen hizkuntza idatzirako oztopo ziren alde dialektalen alderdi negatiboa nabarmentzeari (Axular eta Tartas XVII.ean; Joannes D'Etcheberri, Larramendi, Cardaberaz eta Mogel XVIII.ean).

XIX. mendean, lehen aipaturiko “apologisten”, nagusiki Larramendi eta Añibarroren, eragin kulturalaren ondorioz, idazteko erabiltzen den euskalkiaren arabera, lau arau “corpus” formal eta bereizi daudela

onartzen da inplizituki. Bonaparte printzeak egindako tokian tokiko dialektologiako lanek alde linguistikoei buruzko kontzepzio hauen hedapenean sakonduko dute.

Baina garai hartan Pariseko Zientzien Akademiako presidente zen M. D'Abbadiek 1853an hasi zituen literatur lehiaketek, geroztik 1873an hasita prosa ere barnesartu zutenek, eta 1879tik aurrera Bidasoaz hegoaldean (Nafarroako Elizondon) egin zirenek, hizkera mintzatu eta idatziaren artean, alde batetik, eta euskalkien artean bestetik zeuden distantziak laburragotzea lortu zuten, eta azkenez, estatu zentralista bik herri berari ezartzen ari zitzaizkion muga linguistiko/kulturalak ikusarazi eta azpimarratzea lortu zuten.

Hegoaldeko Euskal Herrian foruak galtzeak, administrazioeko eta eguneroko bizitzaren arteko banaketa azpimarratuko du, nahiz eta, erreakzioz, hizkuntza eta politikari dagokienez zeuden joeren areagotzea ekarri zuen. Testuinguru honetan “Lecciones de ortografía del euskera bizkaino” argitaratzen da (1886), beronen egilea, Sabino Arana, euskal nazionalismo tradizionalaren formulatzaile erabakiorrenetariko bat izango delarik.

Bide beretik heldu nahi izan zitzaion ortografi batasunaren arazoari “Euskaltzaleen Biltzarra”ren Hendaiako Kongresuan, 1901eko irailaren 6an.

Baina aranatar formulazio politikoek aukera kantabrista “bizkaitarra” eta etnozentrikoa, elementu batzailleen aurrez lexikografiaren garbitasuna azpimarratzen

zuen a ezarri nahi izan zuten. Aranak bere tesiaren aldeko erabakia har zedin saiatu zen bozaren erabilera politikoaz baliatuz. Horrela, 1902ko (Irailak 2) Hondarribiko Kongresurako, Bizkaiko 293 euskaltzale bere tesiaren inguruan biltzea lortu zuen, baina hain izan zen handia beste euskalki batzuetako ordezkarien sortarazi zuen erreakzioa, non batasunaren kontuak aparkatuta geratu behar izan zuen, kontsentsu linguistikotik hurbilago zegokeen beste ekimenen baten zain.

1918an, Eusko Ikaskuntza Elkarteak, Oñatin bilduta, bere Hizkuntza sailetik, Euskaltzaindia sortuko du, Euskal Hizkuntzaren Akademia izango dena. Erakunde hau Donostian bilduta 1920an (Urtarrilak 8), bere hamargarren biltzarrean bozketaz erabakiko du funtsean Sabino Aranak urteak lehenago proposaturiko bera izango den ortografia erabiltzea eta gomen-datzea. Geroago (urte bereko Abenduaren 29an), nahiz eta barne-erabilerarako baino ez, hizkuntz batasunerako oinarri gisa gipuzkera erabiltzea erabaki zen Bilboko Batzarrean. Baina kontua ez zen zailtasunik gabekoa, eta oso desberdinak ziren eskaintzen ziren soluzioak. Batzuek lapurteraz edo behe-nafarreraz idatziriko literatur tradizioari ematen zieten lehentasuna, beste batzuek euskalki bat edo beste bat oinarritzat aukeratzetik etorritako irizpide sinkronikoei, beste batzuk batasunaren kontra zeuden beste barik. Horrela etorri ziren bata bestearen ondoren Bilbo, Donostia,

Lekaroz, Hazparne eta abarreko batzarrak, eta haietan 18 tesi idatzi desberdin jaso ziren. Aipagarri da garai honetan Arana bezalako gizonak lehiakide zituela Euskaltzaindiko presidente izan zenak, egin zuen lana, zeren, hala bere literatur lanaz nola bere bilketa eta teorikoki zein herriz herri ibilita egin zituen ikerketez, 1968az geroztik “euskara batua” deitzen diogunaren oinarriak jarri baizituen.

Franco jenerala buruzagi zela jotako kolpe militarren ondorioek, joera “inperialen” oinarri ideologikoak zituen diktadura zantarraren ezarketa ekarri zutenek, oso zail egin zuten aipatu bidetik jotzen segitzea Espainiako estatuan finkaturiko legeria berriaren menpean. Horregatik, honaino deskribatu dugun prozesuaren jarraipena, erbestean finkaturiko pentsalari edo/eta taldeen inguruan aurkitu behar dugu hemendik aurrera.

1936az geroztik, Parisen argitaratzen zen “Eusko Deya” aldizkariak eutsi zion Bigarren Mundu-Gerra amaiera osteraino gero “batuaren” oinarri izango zen idaztankera batuari. Parisen jaiotako euskal jatorriko bi idazle (Mirande eta Peillen) prozesu hau ulertzeko erreferentzigune izango dira garai hartan, zeren, prozesu hau “continuum” baten ondorio bada ere, ordutik aurrera “modernotasunaren” ezaugarrietan, hau da, sekularpenean, sozializazioko literatur ezaugarri modernoetan, etab.etan jarriko duen inflexiogune batean sartuko baita.

Hala ere, Espainiako estatuan, “gerra zibila” deritzonetik 20 urtera, Euskaltzaindiaren planteamenduak 1956ko Arantzazuko Batzarra) hizkuntz batasunaren premia planteatzetik urrun daude. Han aurkezturiko txosten guztietarik batek bakarrik helduko dio gai honi. Txillardegik eginak hain zuzen, aldi horretan erbesteratu beharra izan zuen idazlea berau, eta gero, ikusiko dugunez, funtsezko garrantzia izango duena arazo honen konponbidean. Idatzizko sorkuntza modernoak, hala ere, gero eta batasun-premia handiagoa zuen. Horregatik Gabriel Aresti idazle eta poetak, 1958an, hitzartze publiko sonatu bat izan zuen bizkaieraz probokazioz, erre-registro dialektalak publikoan eta bereizgabeki erabil-tzeak azaleratzen dituen kontraesanak argitara ateratzeko. 1959an, aitzitik, bere “**Maldan Behera**” poema publikatu zuen, non bederatzi urte geroago euskara batutzat hitzartu zen euskara-mota aurkitzen dugun.

Lehen aipatu dugun inflexiogunea kultur planteamendu tradizionaletikiko apurketa batean datza, hots, literaturari dagokionez historikoki erlijio katolikoaren nagusitasun-aldian eta historikoki Eusko Alderdi Jeltzalearen aitzindaritzapean izandako planteamendu tradizionalen eta ETaren fenomenoaren inguruan garai honetan agertzen diren nazio-askapen eta kultur modernizazioko planteamenduen artean gertatu zen apurketan.

Prozesu honetan, jakina, beste elementu batzuk ere badauden arren, dudarik gabe esan daiteke bertan aurki daitekeela hain fenomeno konplexua ulertzeko modua eskain dezakeen kontraesan nagusia.

1960an egun euskaltzainburu denak, Jean Haritschelarek, hango kide huts izateko kargua hartu zuenean Baigorri, orduan presidente zen P. Lojendiok gipuzkeraz egin zion ongietorriko hitzaldia. M. Lafontek zubereroaz aurkeztu zuen euskaltzain berria, eta sarberriak behe-nafarreraz eman zuen bere lehen maisu-lekzioa. Euskaltzaindiaren jarrera publiko honek, geroago, P. Xarriton eta Txillardegi euskaltzain urgazleen dimisioa eskatzea ekarri zuen.

Hari berean, 1963an, Baionan “Euskal Idazkaritza” zeritzona hasi zen biltzen eta, euskalki guztietako ordezkari osatua, euskal aditza batzeko lan neketsuari heldu zion.

Beste talde eta pertsona batzuek ere erreferentziagune diferenteetatik fin eskuhartu zuten euskaldun guztien premia honi aterabidea emateko proiektuan. Azpimarratu beharrekoak dira Mirande eta Peillenen arestian aipatu lanak Parisen, X. Kintana, G. Aresti eta I. Berriatuarenak Bizkaian, eta halaber Jakin aldizkariarena Gipuzkoan eta Anaitasunarena Bizkaian.

Talde berri guzti hauek nazionalismo tradizionalaren hegemonia arriskutan jartzeak hizkuntz batasunaren kontrako erreakzio amorratua eragin zuen, batasun honen azterketa, nahiz eta egiten hasia eta aurreratua,

oraindik egiteke dagoelarik, baina, zalantzarik gabe, argia ugari ekarriko duelarik gure herriaren oraintsuko historiaren gainera Azkenean, Baionako batzar teknikoaren emaitza kontsentsuz onartu zen hiri hartan abuztuaren 29 eta 30ean egin zen batzarrean; horrela L. Mitxelena euskaltzain eta itzal aintzatetsiko hizkuntzalariak bere gain hartu zituen oinarrizko akordioak, Euskaltzaindiari aurkezteko (Euskera '1968', 139, 205, 206 eta 216 or.).

Baina honekiko erabakiak atzeratuz zihoazen eta euskal literatura berriaren ordezkari ezagunenak Ermuan batu beharra izan zuten 1968ko 28/29 eta 30ean eta literatur hizkuntza komunaren alde "zin egin" beharra izan zuten.

Euskaltzaindiaren "urrezko ezteien" ospakizunaren inguruan heldu zitzaion behin-betiko gaiari. Honen ondorioz, 68ko udazkenean erabakitzen ziren hizkuntz batasunerako oinarriak, abiagunetzat L. Mitxelenaren lana hartuz, honek, aldiz, Baionako akordioak (1964) eta Ermuako arrazoiak (1968) jasotzen zituelarik.

Gorago esan bezala nazionalismoko talde tradizionalen presioa, lokalismoaren aurrez aurre nazio-konzeptu modernoa zekarren hizkuntz batasunaren kontra zegoen.

Espaniar eta frantses "intelligentsiak" ez zuen sekula begi onez ikusi Estatu bietan mintzatzen zen hizkuntzaren batasuna.

Eta horrela gertatu zen “euskara batua” hasiera batean erdeinatua eta jazartua izatea kultur ezarrera handiko planteamendu zenbaiten aldetik. Urte horietan euskaltzainburu izan zen M. Lekuonak berak ere ez zituen betetzen Euskal Akademiak batasunari buruz jarritako arauak, honek gatazka franko zekarrelarik. Presioak hain izan ziren handiak, non Euskaltzaindiaren bilera batean (Bergara-1978) lehenago hartutako erabaki batzuk kontra-erabakitzeraino heldu zen, era honetan horretarako lan egin zutenengan ondoeza sortu zutelarik, baina nazionalismo tradizionala konforme utzita, nahiz eta honek, hala eta guzti ere, batuaren kontrako bere borrokan segitu zuen.

Hala eta guztiz ere, bi hezkuntz-lan izan dira erre-akzio horrek haiek nahi zuten ondoriorik ez izatea lortu dutenak.

Aitzitik, esan daiteke ezen, aurkaketa eta polemika horiek oraintsukoak diren arren, euskara batuaren ezarrera erantzunezinezko errealitate dela. Honetarako asko ekarri dute, alde batetik, 68az geroztik burutu-riko helduen alfabetatze-lanak, eta bestetik, ikastolen garapen hazkorrak.

Kasu biotan gizarte-mugimendu indartsuak aurkitzen ditugu, nazionalismo tradizionalak jarritako trabak gainditzen jakin izan dutenak, hala eremu ideologiko/linguistikoan, hemen azaldu den bezala, nola instituzioen aldetiko traben eremuan, beste foru batzuetan argitara ateratzeko egokiera izan dudana bezala.

Ezin daiteke uler ez eztabaida linguistikoa ez eus-kara batuak egun duen ezarrera, baldin, nazio-konzeptu modernoaren inguruan bildurik erregistro dialektalen erabilera publikoa abolitu/gainditu duen presio sozialarekiko erreferentzia saihesten bada. Asko dugu oraindik egiteko, baina Euskal Herriko zazpi lurralde historikoetan erabiltzen den hizkuntza, normalkuntzarako joeraz zientzia eta literatura sortzen duen hizkuntza da. Pirinioz handik eta hemendiko euskal hiztunek egunkari bera dugu geure hizkuntzaz (BERRIA, espainiar estatuak *Euskaldunon Egunkaria* arrazoirik gabe itxitakoaren oinordekoa), zeinak, ez estatuko ez 11 autonomi elkarteetako diru-laguntzarik ez duen arren, inola ere gutxiesgarri ez den zabalkundea lortu duen alfabetatuen kopuruarrekiko konparazioz. Azken batean, nola hizkuntzaren batasuna, gaur egungo Administrazioaren egituren ginetik, euskaldunen batasuna gero eta gehiago ahalizatzen ari den, halaxe Euskal Herriaren batasun politikoari buruzko ideiek ere idatzizko hizkuntza komunaren batasunari irmoki heltzea erabaki zuten. Eta hau argi badago, hemen frogatzen saiatu garen bezala, “corpus” linguistikoaren arazoei dagokienez, argiago dago hizkuntzaren “statusaren” gertagarritasunei dagokienez. Baina honek beste atal batera eramane beharko luke gure historia...

2. Hizkuntzaren “statusaren”aldarrikapena:

“Euskal soziolinguistikaren lehen urratsak berak eman zituen. Uste dut euskararen beharretik ekarpenak egiten zituen gizona izan zela Txillardegi, marketin instituzionalaz harago. Adorea zuen bai horixe, baina bere adorea ez zen bulegoan geratzen zen horietakoa, kalera ere irteten baitzen, salatu behar zenean salatzeko, baina beti modu eraikitzailean”.

Pasadizo ugaridun gizona, nola orain dela urte batzuk, erakundeetatik “euskaldunoi leporatzen zigutenean euskara ez genuela erabiltzen, are gehiago, euskaldunok zabarkeriaz tratatzen genuela gure hizkuntza”, berak erakutsi zuen “ezagutzak gora egiten ez zuen bitartean erabilerari ezin geniola gehiago eskatu, matematikoki erakutsi zuen euskaldunok oro har atxikimendu handia agertzen diogula hizkuntzari, orduko diskurtsoak gezurtatu. Bidelagun izan dugu, eta, inoiz gure hizkuntzaren berreskurapenaz mintzatzean, Txillardegik ohorezko lekua hartuko du” azaldu zuen Paul Bilbaok, Kontseiluaren izenean **GARAN** 2012/01/16an.

Era bertsuan, eta egunkari berean, Juan Mari Torrealdei, soziologoa eta euskaltzainak adierazitakoa: “Txillardegi gauza asko izan da –azpimarratu nahi izan zuen atzo– eta gauza berri askoren abiapuntua izan da: Euskal Herri berriaren abiapuntuan egon da, euskaltzaletasunean, herriaren abiapuntuan... eta gero nobelagintzan eta euskara batuaren abiapuntuan ere.

Hitz batean zaila da laburbiltzea zer izan den, baina esango nuke distantziarekin bere irudia handituko zai-gula. Nik beti izan dut etxeko anaia zahar bat izango balitz bezala, beti aitzindari; guk beti bere ildotik jarraitu dugu”.

“Alderdi politikoen gaineratik beti jartzen zuen euskara, eta horretan Martin Ugalderekin lotura ikusten diot –gehitu zuen–. Gaur egun naturala iruditzen zai-gun hori bere garaian ez zen horrela, eta hori zor diogu Txillardegiri ere. Badakigu euskara batuak guraso asko dituela, baina niretzat, ez bakarrik linguistikagatik, baizik eta beste gauza askogatik, Txillardegi euskara batuaren gurasoa izan da. Euskaltzaindiak bedeinkazioa eman zion martxan zegoen prozesu bati, eta hor bultzatzailea Txillardegi izan zen”.

Makina bat saiakera eskaini zion euskararen gizarte “statusa” aztertzeari: *Hizkuntza eta pentsakera* (1972); *Sustrai bila. Zenbait euskal koropilo* (1970); *Euskal Herritik erdal herrietara* (1978); *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981* (1984); *Soziolinguistika matematikoa* (1994) eta, bereziki *Euskararen aldeko borrokan* (2004).

Blanca Urgell, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak egun berean Euskadi Irratiari esan zioenez: “Nik uste Txillardegik ekarpen erraldoia egin diola euskalgintzari, Euskalgintzan batez ere bultzatzailea izan baita, eta hasieratik euskara batua eratzen hasi zenetik horretan egon zen. Beraz, alde horretatik gure

hizkuntzaren normalizazioaren bultzatzaile bat izan da zalantzarik gabe. Oso berritzailea izan zen, lehenengoz egin zuelako euskarazko eskuliburu bat euskara hutsean”.

Ez bakarrik, bada, euskara batuaren alde proposamenak egin, hizkuntza literarioari kontsentsuzko bidea eskaintzeko eta horren aldeko borroka egin zuela Euskaltzaindiaren barruan eta kanpoan baizik eta euskararen erabilerarako eredu izan zela bere eguneroko praktketan. Tokian tokiko historia idazterakoan, adibidez, *Antigua 1900* (1991) eta *Santa Klara, gure uharte ezezaguna* (2004), euskara ere erabili zuen.

3. Politikaren bidean:

Jose Luis Alvarez Enparantza, Donostiako Antigua auzoan 1929ko irailaren 27an jaiotakoa (“Gudarien egunean”, beraz, gudarien eguna izendatu aurretik...) Ez zuen, nonbait, gurasoen aldetik euskara jaso eta bere bidea bakarrik korritu behar izan zuen euskaldun bihurtzeko. Oso gaztetatik frankismo aurkako giroan hezia, berehala hasi zen militantzia politika arloan murgiltzen. Ekin-en eta ETaren sorreran aritutakoa Ingeniaritza ikastera joan zen Bilbora eta hantxe zegoelarik abertzaletasun tradizionala kritikatzeko ere aritu zen haien “etsaitasuna irabaziz”. Modu bereko harremana eduki zuen marxismo-leninismoarekin eta, ondorioz, borrokarako molde berriak lantzeari ekin zion.

Hirurogeigarren hasieran, kartzela ezagutu ondoren (Martutene espetxea “inaguratu” baitzuen) atzerira jo eta 1967an ETA utzi zuen 1977an Hego Euskal Herrira bueltatuz; ESB alderdiaren sortzaileetako bat izan zen orduan, bai eta Herri Batasunaren antolaketan ere parte hartu zuen senatari bihurtuz bi legealditan, azkenean, Mugurutz diputatuaren asesinatzearen lekuko zuzena izan zelarik.

Aralar alderdi politikoaren alde egin zuen hasieran baina 2007an utzi zuen betiko esker abertzalearen ildora itzuliz.

4. Literatura:

Bere lehen nobelan *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957),

“Zeren, nork idazten du? Noiz idazten da? Egunkariei buruz ari gera orain.

Literaturan aztertzen badugu, berehala ikertuko dugu gauza bat: egunkari famatuena idatzi dituztenak barne-prolema gogorak zituztela.

Munduan erlijiozko fedea galdu ahala kezka eta zalantza haunditu zaizkio egungo gizonari, ta haiekin batera, geroz ta gehiago ugaritu dira barne-egunkariak, benetako literatura-moda bihurtu arte.

Hamaika dira hau probatzeko aipa genitazkenak; eta, agiritzat, irakurleak ezagutzen dituen bi gogoraziko dizkiogu: Kafka eta Amiel. Paranoikoen mallan jarri ditezke biak askoren iritziz.

Alde batetik, bada, barnekoiek eta. neurotikoek idatzi dituzte egunkariak. Eta Leturia etzan, gure aburuz, haietako bat, hurbil xamar bazebillen ere.

Badira, bestalde, egunkariak idatzi ohi dituztenak, gizon erdi eroak izan ez arren. Denok izan dugu bizi-tzan egunkariaren aroa; eta bide honetatik azaldu behar da Leturia'ren hutsunea, ta bere adirazkuntza.

Noiz idazten dira-ta egunkariak? Noiz idatzi duzu zeuk, irakurle? Beltzurak zure anima goibeltasunez bete zuenean.

Illuna da poesia. Alai ez da poesigarri. Ez al zenuen orain arte nabaitu? Nekez azal diteke, munduko

alaitasuna: osoa ez delako, noki, ez gaitu sakon hunkitzen. Tristura, ordea, bihotzeraño sartzen zaigu”.

Parragrafo honek, eleberri osoak bezala, ikuspegi existentzialista ekarri zuen euskal letretara. Unamunoren itzala, hasieran, baina orduko europear jite ideologikoak ondoren, etorri ziren gure literaturara Txillardegiren bidez.

Peru Leartzako (1960) bigarren eleberria izanik, ez zuen *Leturiaren egunkari ezkutua* bezalako osperik erdietsi baina badu, eduki, goian aipatutako kultur giro europarren isla ere:

“Kanposantuan sartu nintzan. Kristaurik etzan han. Hillarriak errenkada luzetan. Hango pakea urragarri zitzaidan: Han-hemenka, hillarrien tarteetan, belar-izpi batzuk. Hezea zegoen hura oraindik, negarrari utzi berria balitz bezela. «Emen datza»... «Emen datza»... «Emen datza»... Ahaztuta han. Are gehiago: jendeak alde eginda”.

Heriotzari buruzko kezka, budismoaren berri ematea etab euskal literaturan geroztik gero eta gehiago agertatutako gaiak izan badira ere Txillardegirengan dute abiapuntua.

Elsa Scheelen (1969), *“Irratia anartean berriak ematen hasia zan: «... Viet Nam'en ikaragarritzko inkontrua gertatu da atzo Mekong'eko ibaiartean:*

“382 vientnamdar gertatu dira hillik; eta, beste aldetik, 17 amerikar. Orain arte ez zan horrelako

hilkintzarik ikusi Viet Nam 'en egun bakar batean; eta, jakin danez...”

Vietnamgo gerratea, laizismoa eta batez ere marxismo agertzen dira lehendabizi euskal narrazio batean. Egun, orduko orriak berriz irakurrita, euskara batuaren aurreko idazkera batua somatzeaz gain, idazkuntza erabat modernoa antzematen diogu testuari.

Eta gero, *Haizeaz bestaldetik* (1979); *Exkixu* (1988) *Putzu* (1999). *Labartzari agur* (2005) eleberririk datoz non, historioak gora-behera, Txillardegik bera izaten da azalarazten zaigun pertsoinaia nagusia. Ez dugu ahortzi behar, fikzio lanen artean, *Kosmodromo* (1984) ipuin-liburua ere kaleratu zuela.

5. Saiakera:

Saiakeren idazleak, pertsonaia literarioa bailitzan, kementa behar du entsegugintzan aritzeko.

Kuraia behar baita norberaren iritzia idazketaren bidez finkatzeko, azaltzeko eta defendatzeko.

Halere, saiakeren idazleak, dogmatismotik ahalik eta urrunen, ez du bere idazkia monologo gisa gartzten lehenengo azalezko hurbilketa batean kontrakoa iruditu arren. Horrela izan da Txillardegiren jarrera literaturan, politikan zein bizitzan. Akademiaren aurrean edo Estatuaren kontra. Salaketa garian edota proposamenak gauzatzeko orduan.

Saiakerak, J. Derridak deitzen zuen “bestearen monolinguismoa” apurtzen laguntzen baitu. Ezaguerak, berez, partekaturik behar baitu izan, eta saiakerak, idazkera polemikoaren bidez, irakurlearekiko elkarriketaren bila sortzen da, kementsu eta bipila. Ausardia behar baita idazkera monologikoak berak bakarrik ez duela gogoetarako aukerarik ematen onartzeko. Era berean, pentsamendu askea sortzeko, Akademiatik kanpoko eztabaidak eta saiakerak, idazketak eta irakurketa zaharrak modu berrian berreskuratu behar ditugula usteko eta, idatziz, hori guztia defendatzen, atrebentzia beharrezkoa da.

Bide batez, pentsatzeko erabili ohi ditugun hitzak ez direla gureak jakin arren.

Gure hizkuntza ez dela orain aldiko bakarrik daki-gunetik, esanahi bakoitzak bere historia duela jabetzen

garelarik eta, beraz, gure esanak, lehenaldikoa bezain orainaldikoa diren neurrian, bizi behar dugun oraina ulertzeko balio behar duela ihardesteko, une eta toki guztietarako, nonahirako eta noiznahirako, balio ez duelako, hain justu.

Saiakera iritzi duina dela esan berri dugu “duintasun” kontzeptuak grekozko dokein (itxura) eta doxa (iritzia) batu egiten baititu. Hau da, iritzia emateko euskarria (guri dagokigunez, hizkuntzak) itxurazkoa izan behar duen hein berean, funtsezkoa izaten da irizpidea plazaratzeko kemena ere. Aburu polemikoak eta norberaren usteak dira saiakera egokien oinarri eta, egia esanda, egunero ogia dugu hori gure gizartean. Edozein gizataldean edonon edonork egin dezakeena baina, bakar batzuk, Txillardegi kasu, egiten ausartzen direnak.

Hau da, bere testuen ikerketatik abiaturik, mundua aztertzeke modu duin bezain pertsonala aurkitzen dugu, eta bereziki, literaturaren bidez, giza bizitza ulertarazten lagunduko digun ekimena.

Ildo horretan Txillardegiren saiakeren irakurketa, haren idazketa ezagutzea zein hari buruzko testu iruzkinak bide berria lantzeko aukera irekiko du euskal eskolan.

Eta entsegu testuak sortzeko, berriz, norberaren eskarmentutik eratorritako iritzia behar bezala azaltzeko, gogoetagaia da funtsezkoena. Hori, eta duintasunari muzin egin gabe, berau garatu ahal izateko taxuzko

hizkuntzari kasu egitea ere, horretan Txillardegi bera eredu izan dela .

Gogoeta sortzeko sistema horixe dugu, nonbait, Montaigenek berak “Entseguak” idazteko erabili izan zuena. Izan ere horrek kutsatu zuen okzitaniarra eszeptikoen leloaz –“zer dakit nik” (Que sais-je?)– eta bultzatu zuen beren hausnarketak izkiriatzera, berriakurtzera eta, haien gainean, iruzkinak eranstera. Hauxe izan da, gurean, Txillardegirk erakutsitako aldartea eta landutako estiloa, non saiakera literarioa ere berritzen duen, *Huntaz eta hartaz* argitaratuz geroztio(1965)mota guztietako bideak hartu zituen entegugintzan baina, batik bat, Jean Paul Sartre, Edgar Morin eta Bertrand Russell pentsalarien itzala nabarmentzen da bere ekarpenean. *Hizkuntza eta pentsakera* (1972) ez da saiakera literarioa gogomenari buruzkoa baizik eta, gaur egungo planteamenduetatik behintzat, aski gaindituta dagoena baina, goian aipatutako orduko gaurkotasuna nahiz ausardia erakutsi zuen. Gauza bera *Euskal Herritik erdal herrietara* (1978) liburuan zeienean alde z aurretiko izkribuak bildu arren orduko erreferentzi ideologikoen berri eman zigun...

Filologia Parisen ikasi ondoren Bartzelonako Unibertsitatean burutu zuen Doktoregoa eta AEBn, egonalditxo bat egin zuen. Ikasketa/ikerketan haien ondorioak dira *Euskara batua zertan den* (1974), *Oinarri bila* (1977), *Euskal gramatika* (1978), *Euskal*

Fonologia (1980), *Euskal Dialektologia* (1983) eta *Euskal azentuaz* (Elkar, 1984) zeinetan hogeitun urte lehenago euskara literarioaren baterakuntzan erakutsitako adorea eta jakinduria euskara mintzatuaren erronkaren aurrean berriro ere azaldu zituen.

Frankismoan, halere, eta hasieran euskaltzainburua zen Azkueren itzalpean, Federiko Krutwigek (1921-1998) irauli zuen ordura arteko euskal pentsaera eta, Txillardegirekin eztabaidan betiere, euskal gogamen berria sortu zutela esan daiteke. Krutwigek Bilbon, Bonnen eta Parisen ikasi ondoren, Larramendirengandik, eta Mogelengandik baitik bat, miresturiko kultura naturalistaren alde ibili beharrean bide berriak ireki zituen euskal izaerari buruzko hausnarketetan. Mogelen iturri hartatik (Peru Abarkaren irakaspentatik...) edan zuten apologistek, euskaltzaleek eta nazionalistek Krutwig eta Txillardegi agertu arte behintzat. Hauek metropolien aurkako XX. mendeko deskolonizatzaileen teorikoak ezagutuko zituzten (Memmi, Sengor, Lumumba, Gevara...) eta kultura menperatzailea eta menperatuaren arteko dialektika modu berri batez erakarriko zituzten euskal gogetara. Euskal Herria ulertzeko hausnarketa berri honek *Vasconia* liburuaren izenburua eraman zuen bere garaian (1963).

Federiko Krutwig ez zen naturalista ez eta populista ere, euskal kultur elitearen premia aldarrikatu zuela baizik. Euskaltzaindian onartua izateko eliza

katolikoren jarrera atzerakoia kritikatu egin zuen sarrera hitzaldiagatik joan behar izan zuen erbestera(1952an), hizkuntz batasunaren irizpideak finkatzeko egindako saioetan (1968) ez zuen onartu nahi izan garbizaleen bidea (Aranaren aldeko ikuspegi nazionalista) ez eta Azkueren antzera gipuzkera osatua proposatzen zuen pragmatismoarena (geroago Txillardegik defendatuko zuena...) eta lapurtera literarioaren alde borrokatu zuen beti. Bere ibilbide intelektuala gizarteratu nahian hamaika liburu saiakera, prentsa artikulua, elkarrizketa eta abar kaleratu zituen: *Praktikaz* (1968), *Garaldea* (1978), *Ekhaitza* (1980), *Mystagintza zaharra* (1982), *Jakintza baitha* (1982)...

Ildo honetatik baina, era berean, Krutwigekiko lehian dago Jose Luis Alvarez Enparantzaren pentsaera Baina Txillardegik ez du, Krutwigek bezala, euskal kultura nekazal kulturarekin inola ere parekatu nahi izan. Aitzitik, Unamunoren antzera, existentzialismoaren ikusmoldea erabili izan du euskal izaeraz pentsatzeko. Bere lehenengo idazlanetan bizitzan egin beharreko hautuez, denboraren joan-etorriaz edo irtenbidea aurkitzerik ez daukaten pertsonaiez josita daude (*Leturiaren egunkari ezkutua*-1957, *Peru Leartzako*-1959, *Elsa Schellen*-1969, *Haizeaz bestaldetik*-1979). Heldutasunean, alabaina, eskematismo politiko hertsia batez aritu izan bada ere (*Exkixu*-1988, *Putzu*-1998; *Lapartzari agur*-2005...) haren

ekarpen guztietan sinbologia berriak eta estilo modernoak etengabe esakaini ditu.

Hizkuntzalaritzaz zein kulturaz ere aritu izan da (*Sustrai bila*-1970, *Hizkuntza eta Gertakarien lekuko*-1985...) eta denak politizatu egin dizkigu euskal intelektual gisa. Jarrera hori zabaldu nahian, gainera, kultur eragile nekagaitza izan dugu. *Branka* aldizkariaren sustatzaile bezala eta Udako Euskal Unibertsitatearen kide gisa euskal pentsamenduaren garapenean funtsezko uztarria izanik.

6. Txillardegi, aberkide intelektualak:

Txillardegiren ekarpena euskal heziketa mundura, ezin da, beraz, jakintza-arlo berezietara (hala fonetikara nola soziolinguistikara) soilik mugatu. Aitzitik, Txillardegi hezitzaile gisa zer den konturarazteko, hezkuntza-arloan bertan intelektual modura aztertu behar dugu ezinbestean. Izan ere, Irakaskuntzari buruzko proposamen garaikideak azpimarraturiko irakaslearen portaerak teknikariaren irudia hobesten du, irakaslegoaren gizarte-inplikazioa baztertuz. Txillardegiren adibideak, berriz, hezkuntza eta hizkuntza politikatu egin dizkigu intelektual gisa. Horra hor bere funtsezko ekarpena hezkuntza-harremanen mundura.

Izaera kaleidoskopikoa izan du Jose Luis Alvarez Enparantzak. Joan Man Irigoien-ek famatu zituen poliedroen hostoen antzera, hamaika aurpegi dituen pertsonaia da. Liburu honetan haietariko batzuk azalarazten direnez, aberriaren aldarrikapenarekin loturik daudenak agertzea suertatu zait. Politikagintzan edo ideologian, eleberrigintzan nahiz literaturan oro bar, hizkuntzalaritzan edota soziolinguistikan bereziki... berak erein, hazi eta hedaturiko uztak nabarmenak ditugu oso. Pedagogiaz, ordea, ez du gauza handirik idatzi nahiz eta Deustoan, Udako Euskal Unibertsitatean, UPV/EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, BAT soziolinguistika aldizkariaren zuzendaritzan edota Euskal Herrian zehar emandako hamaika eskoletan bere irakasle gaitasuna

ederki erakutsi. Hala ere, gauza pare bat azpimarratu nahiko nuke nik Txillardegi eta Pedagogia elkarrekin lotzerakoan.

Alde batetik, bere izaera eta historian euskal intelektualaren ezaugarriak nabarmentzen diren legez, eskola emateko garaian ere hezitzailearen rola intelektualaren ereduarekin lotu izan du beti, niretzat, egun ja ahaztuta bezain funtsezkoa zaigun hezkuntzajarrera erakutsiz eta, de facto edota errealitatez, heziketan intelektualaren irudia aldarrikatuz.

Bestetik, ofiziozko hizkuntzalaria eta fonologoa izanik, baina aldi berean, bere maisutza-lanetan kasu berezia egin dio aspaldidanik kezkatu nauen arazoari: ahozkotasanaren eta heziketaren arteko binomioari, alegia.

Izan ere, Txillardegiren nortasun publikoaz aritzekoan bi ardatz antzematerik badago ere (bizierak eta idatziak). eta Historiarako bereziki bigarrenagatik eza-guna bada ere, bere bizipenek baldintzaturiko idazkiak ditugu ja bere bizitza osoan zehar berak izkiritatuta-koak. Euskaltzaindiko liburuzaina den Pruden Gartzia oñatiarrak bildutako Txillardegiren milaka artikulua, ehunka saiakera eta dozenaka liburu haien atzean, Joseluisen bizitza dugu beti, eta, nabarmenki, ezkutatu gabeko bere hautu politiko eta intelektuala. Horixe da ekoizitako literaturaren sorburua, eta gainera, bere kasuan inon baina argiagorik ezin, bai artikulua baita saiakerak eta gainerakoak ere benetako literaturaren

abiapuntu. Berea izan baita euskal letretan, bederen narratiban, besteengan nekez aurki daitekeen literatura modernoaren aintzindaritza, hain zuzen.

Baina, goian aipatu bezala, bere bizipenak idazki haien oinarri eta akuilua izan badira ere, itzalean geratu ohi zaizkigu argitaratutako gabekoa letren aldean. Eskola ematean, berriz, benetako Txillardegiren intelektuala azaldu izan da beti, eta horri erreparatu nahi diot nik hemen eta orain, irakaslearen erantzukizun intelektuala proklamatzeko. Izan ere, hezkuntza-erreformako sasoietan (erreformismo-garaietan esan genezake, bide batez) errotik garaturiko Txillardegiren diskurtsoa, berdin da fonetikaz edo gramatikaz, elebitasunaz nahiz hizkuntz eskubideez... bere hausnartzerako gaitasuna ez da inoiz motz geratu irakaslearen ustezko neutraltasunaren moztorrepean. Aitzitik, bere hautuak beti agerian, haren eskoletan erreformismoak ez du inoiz tokirik izan.

Laurogeiko hamarkadaren hastapenetan Zorroaga zaharreko hartan bildu ginenean, nire aurrean pausatutako gizona, bere izkribu eta haietarako erabiltzen zituen goitizenen bidez soilik nuen ezaguna. Larresorok edo Txillardegik ogibidezko lanerako hiru aukera zituen aurrean aldarte hartan. Alde batetik Deustuko Unibertsitatean irakasle gisa segitu. Bestetik, Donostian sortzen ari ginen Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan aritu; baina azken honetan bi bide desberdin bazituen ere, gutxienez:

Filosofia-arloan aritu ala Hezkuntzan murgildu. Azken hau izan zen orduko Joseluisen hautua. Eta bere bizitzan egindako besteak bezala, ene aburuz, hautu politiko eta erradikal baten ondorioa izan zen hura. Garai hartan itxaropenaz beterik abian zegoen Unibertsitate Publikoa aukeratzea begi-bistakoa bazen ere, Txillardegiren berezko tokia Filologia Fakultatean zegoen; baina, askotan legez, erbestea egokitu zitzaion berari. Hau da, orduko Unibertsitate publiko berria aukeratu zuen, nahiz eta berarentzat aproposena ez izan, Deustuko euskal filologiaren aldean, akademikoki behintzat. Eta sortzen ari zen Unibertsitate hartan Pedagogia aukeratu zuen (orduko Hizkuntzaren Pedagogia, zehazkiago esanda) Hizkuntza-Filosofiaren kaltetan, askoz euskaldunagoa eta euskal gizartearentzat eraginkorragoa-edo iruditzen baitzitzaion, nahiz eta garai hartako Filosofia Fakultateak hasi berria zen Zorroagako ospe eta prestigioa gehiena bildu.

Pasadizo txiki honek, bada, Joseluisen hautuen bern ematen digu. Bere bizitza publikoak antzematen uzten ez duen bizipenen itzala. Idatzita ez dagoena, baina, era berean, pertsonaia publikoaren ezaugarriak erakusten duen jarrera. Dena den, irakasle bati buruz aritzerakoan aipaturikoa anekdota hutsa baino areago, adierazi bezala, ondorio pedagogikoak dituen jokaera dugu, Txillardegik, intelektual gisa, hezkuntza-mailan azaldu ohi duen portaera, hain justu.

Kontuan hartu beharra dago, azken hogeita hamar urteotan (biok batera heziketa-zereginetan ibili garen haietan) pedagogiaren mundua etsipenak jota egon dela. Funtsezkoak izan zaizkigun egileek (Basil Bernstein, Michael Apple edo Pierre Bourdieu eta Jean Claude Passeron) irakaskuntzak indarrean zegoen gizarte-mota iraunarazteko besterik ez zuela balio esan ziguten. Bai hizkuntza-mailan baita hezkuntza-arloan ere, sistemarekiko konplizitatea ala salaketa-bideak ziren azaleratzen ziren aukera bakarrak. Etsipen honen aurrean Txillardegiren zeregin erradikala, nola irakatsitako edukietan hala emandako eskola-formetan, intelektualarena izan da eta, praktikan, Henry Giroux-ek teorizatutako irakasle eraldatzaileen eredia gorpuztuz joan da.

Hau da, intelektual gisa gizarte mailan erakutsitako jarrera bera dugu Txillardegik hezkuntza-jardunean irakatsitakoa. Alde batetik eta edukiei dagokienez, etengabeko gaurkotze eta birziklaia landuz (egungo globalitatearen kulturaren inoiz baino premia-azkoagorik suertatzen zaiguna). Bestalde, irakaslea teknikari huts gisa nahi duen moderniaosteko eskola instrumentalistan, Txillardegik hausnarketarako tartea modu irekian eduki du beti. Hitz batean, bere bizitza osoa bezala, Joseluisek “politizatu” egin du hezkuntzaren jarduna, edo hobeto esanda, berak emandako gaietan (elebitasuna, soziolinguistika eta abarretan) ezkutaturik zegoen politika azalarazi du, intelektual eraldatzaile bati

dagokion eran, bide praktiko batez, pedagogiak ahazturik zuen jarrera kontzientziatzaile historikoa berreskuratuz.

Baina badago Txillardegiren zeregin pedagogikoe-tan gaur egun funtsezkoa den beste nabarmendura bat. Izan ere, eta goian aipatu bezala, intelektualani dago-kion jite erradikal hura gizarteari buruzko ohiko irakurketa marxista azalearekin loturik azaldu zaigu. Bai Bernstein-ek, Apple-k edo Pierre Bourdieu-k eta Jean Claude Passeron-ek, baita Freire-k ere, salatu duten zapalkuntza, funtsean, salaketa ekonomikoa izan da baina Txillardegiren ekarpena, berriz, hezkuntza munduan hizkuntz eta kultur zapalketari egin beharreko berebiziko arreta da. Ildo honetatik bat dator M. Stubbs-ek garai bertsean proposatutakoarekin. Hau da, kultur zapalketa ezin dela etengabe iraunarazten den egoera modura ulertu. Aitzitik, eskolak baduela hizkuntz eta kultur zereginetan erantzukizun berezia, eta bere hartan (nahiz ez horretan bakarrik) zapalkuntza-egoera iraultzeko lan egiterik baduela.

Egun, berriz, gure orainean, euskaraz normal ari-tzen diren ikastolak eta euskal eskolak badaude, uni-bertsitateetan euskal adarrek gero eta ikasleria gehiago badute, udalerrri euskaldunen partzuergoa indartsu dabil, euskal testugintzak modu orekatuan eusten dio egonkortasunari, autodeterminazioaren bidean inoiz baino trinkoago dabil euskaldunon aberria... eta hori guztia, besteak beste, Txillardegi bezalako intelektual

batek Euskal Herriko arazoei ikuspegi nazionaletik begiratzeko, salatzeke eta irtenbideak proposatzeko gauza izan zelako. Bazekielako, finean, burujabetzaz, agian, euskal kultura ez dela salbu egongo baina, independentziarik gabe, ziur zegoen euskarak etorkizunik ez duela izango.

Duela mende erdi eskas, ordea “ Le Pays Basque Ça n’ existe pas” esan zion Doueil Pabeko jaun prefetak Piarres Xarritoni Txillardegi erbesterako bidea hartu berria zuela, eta Xarritonek, aldiz, berehala ihar-detsi zion:

“Jauna euskaldunak hor daude beti mendietan eta zuek, frantsesek eta españolek nahi ala ez, bi aldetako euskaldunek zerbait gaitz badugularik honaindian badakigu anaiek hartzen gaituztela anaiak bezala hegoaldean eta berdin ondoko aldian guk hartzen ditugu haiek gure etxean”.

Pasadizoa azaltzerakoan honela kontatzen digu egun Xarritonek bere hizkera ezin ederragorik:

“Horra zer gertatu zitzaidan nihauri mila bederatzirehun eta hirurogeian. Ordukotzat alabaina, eta haurdanik, Jose Luis baino bederatzi hamar urte zaharrago izanagatik ene Ehulategiko etxe aitzinetik ikusten nuen Urtsu mendiko gibeletik Hazparneraino etorria zen Enparantzaren lehen kusi bat, hura ere bi andere Axun Enparantzaren iloba zena.

Banekien, beraz, Donostiako Jose Luisen eta haren etxekoan berri. Horra zergatik egun batez joan behar

*izan nintzaion berarekin hitzartu bezala Dantxarinea-
ako mugaraino bere bila ene kotxe ttipiarekin .*

*Mugako karabineroen etxola gibelean den ostatu-
an bera sarturik urgaineko zubia iragan zuen eta
nik eskua eman nion eta erakarri Hazparneraino
nihonek orduan zuzentzen nuen ikastegiraino.*

*Berak postaz bidali zion Laffite apezari "Herria"
zuzentzen zuenari, geroztik eskuratu daukadan karta
erraiteko astero Baionatik Donostiarat bidaltzen zion
astekaria oraindanik helaraz ziezaiola Hazparneko
Lizeora.*

*Nik eskatu nion berehala has zedin gure ikasleen
irakasle izaten eta gure orduko ikasleek aitor lezake
gaurdaino zer matematika irakasle miresgarria es-
kaini nioten.*

*Bainan laster, Txillardegi bera eta haren laguna,
Benito del Valle zena, ene anaia zenarekin, Jean Ba-
ttite Charriton, Gotor enpresa sortua zuena, kanpo-
ratu nahi izan zituzten eta, Txillardegik, lehenik
klandestinitatean sartu Amoroitzeko apezetxean, haren
familia Angelun zegoelarik, eta gero Pariserat eta
Belgikaraino joan behar izan zuen. Horra zergatik,
Duhaldek kantatu bezala, ama Euskal Herria baldin
bada, euskaldunak oro anai-arrebak garen... "*

*Lehenaldi hark gaur dirau. Txillardegi intelektuala,
kartzelaren mehatxutik iheslari, erbesteratua, idazlea
eta maisua, aberkidea... hil arteraino gurekin baitago
betiko. Orainaldian, euskaldun denon ondarea.*